

14. NAO - 2015ko urtarrilaren 22a

36. NAO - 2022ko otsailaren 18a (6.,10.Art-en arteko eta tarifaren aldaketa)

25. ORDENANTZA: ORDENANTZA FISKALA, UDALEKO GAZTERIARENDAKO BALIABIDEEN ZENTROAK ANTOLATZEN DITUEN IKASTARO EDO JARDUERA SOZIOKULTURAL NAHIZ AISIALDIKOETARAKO SARRERA, IZEN EMATE EDO MATRIKULAGATIK ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUENA

Oinarria

1. artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen lehen tituluko III. kapituluko 2. ataleko 2. azpiatalean xedatuari jarraituz ezarri da ordainarazpen hau, eta haren 28. artikulua baimenaren babesean.

Kontzeptua

2. artikulua. Prezio publikoak galdatuko dira, Udaleko Gazteriarendako Baliabideen Zentroak urtean antolatzen dituen ikastaro edo jarduerak soziokultural nahiz aisialdikoetarakoetan parte hartu edo horietara joateko eskubidea ematen duten sarrera, matrikula edo antzeko beste edozein kontzeptu dela eta, prezio publikoak aplikatzeko beste ordenantza batzuetan sartuta ez daudenean.

Kudeaketako eta diru-bilketako arauak

3. artikulua. Prezio publikoaren zenbatekoa ordainduko da izen-ematea edo matrikula egitean.

4. artikulua. Prezio publikoak ikastaroa edo jarduerak antolatzeko oinarriek kasu bakoitzerako ezarritako moduan eta tokian ordainduko dira.

5. artikulua. Prezioa ordaintzera behartuta dagoenari leporatu ezin zaizkion arrazoiak direla eta, ikastaroa edo jarduerak egiten ez bada, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio. Gainerakoetan, behin betiko inskripzioa eginda, ordaindutako zenbatekoa ez da itzuliko.

6. artikulua. Artikulu aldatua (2022-02-18ko NAO on argitaratua) Baldin izena emateko epea bukatu berri postu librerik galditzen bada, 30 urtetik gorako eta 35 urte bitartekoei eskaintzen ahal zaizkie, eta lehentasuna emanen zaie Barañainen erroldatutakoei, betiere ikasturte osoa ordaintzen badute.

Tarifak Atal aldatua (2022-02-18ko NAO on argitaratua)

7. artikulua. Aplikatu beharreko tarifek zerbitzuaren zuzeneko kostuaren %50 ordainduko dute gutxienez; alegia, irakaslearen edo zerbitzua ematen duen enpresaren kostua. Salbuespena izanen dira Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren mendeko Gazteria Programak antolatutako jarduerak (eranskinean ageri dira).

Saiakera egiten da ikastaroek 20 ordu iraun dezaten eta, betiere, orduen eta zenbatekoen batezbestekoa egiten da, ikastaroen edo lantegien iraupenaren arabera, aurreko taula kontuan hartuz.

8. artikulua. Ordenantza honen eranskinean azaltzen diren tarifak aplikatuko dira, edo kasu bakoitzean Tokiko Gobernu Batzarrak ezartzen dituenak, betiere garatu behar den jarduerari egokituak, eta, hala bada, balio erantsiaren gaineko zergaren kuota ere izanen dute.

9. artikulua. Halako ikastaro berariazkoak badira, ezaugarri bereziak dituztenak, 10 erabiltzaileri baino gehiagori batera ezin zaienean eman, ez dira tarifa hauen barrenean sartuko. Horietan orduaren prezioak gutxienez ikastaroaren kostuaren %50 estali beharko du.

10. artikulua. Inskripzioetan egindako diru-sarrerek markatuko dute jarduera bakoitzeko parte-hartzaileen gutxieneko kopurua; gutxienez ere monitoreen kontratazio-kostuaren %50 estali beharko dute.

2022KO TARIFEN ERANSKINA - 36. NAON ARGITARATUA 2022KO OTSAILAREN 18A

Ikastaroak: Prezioa orduko	Erroldatuak 1,80 euro	Erroldatu gabeak 3,60 euro
Jarduerak	Jardueraren kostuaren arabera	Erroldatuek halako bi
TARIFAK, GIZARTE-ZERBITZUEN MENDEKO GAZTEENTZAKO PROGRAMAK ANTOLATUTAKO JARDUERETARAKO		
Jarduera	TARIFA 2022rako (eurotan)	
Osasuna sustatzeko jarduera berariazkoak (Joan-etorri zerbitzua kenduta)	Doan	
Baliabide propioekin egiten diren jarduerak eta kostu erantsirik ez dutenak edo gauzatzeko material txikia erostea behar dutenak (eskulanak, Topalekuko lantegiak...)	Doan	
Elkarte edo talde egituratuek (Break, BMX, Grafiti...) sustaturiko jarduerak	Doan	
Udalak antolatutako txapelketak, eta lehiaketak	Doan	
Prebentzio jarduera selektiboak, Oinarritzko Gizarte Zerbitzuak proposatutako pertsona kaltebera edo arrisku handikoentzat, nahiz eta izen-emate irekiak ere onartu talde normalizatuak osatzeko (eskola-laguntza, "Barañainek harrera egiten dizu"..)	Doan	
Aisia osasungarriko jarduera espezifikoak	Kuota sinbolikoa 2,10-5,20	
Talde naturalek proposatutako jarduerak, (Magic, areto-fubola...): kuotek jo behar dute haien gastuen %50 berdintzera, eta gutxienez ere kostuaren %25era ailegatu behar da jarduera gauzatzeko	Jardueraren kostuaren arabera	
Jaietara joateko bus zerbitzua ("Joan-etorri")	Erroldatuak 4,50	Erroldatu gabeak 6,75